



KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA  
SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
Herri Administrazioetan Hizkuntza  
Normalizatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA  
Viceconsejería de Política Lingüística  
Dirección de Normalización Lingüística de  
las Administraciones Públicas

## HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA

**Espedientea:** DNCG\_LEY\_103336/20\_07

**EUNEIZ Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate pribatu gisa onartzeko Lege-proiektuaren** berri jaso dugu bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan irailaren 3an Tramitagune tresna informatikoaren bitartez. Hezkuntza saileko Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen zuzendaritzak bidali eta derrigorrezko txostena emateko ere eskatu digu.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 14.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

### a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuak xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezarri zuen: “*euskararen erabileraren normalizazioaren arloan eskumena duenak araua prestatzeko hasierako fasean esku hartu ahal izan dezan*”. Azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, aurrekoa indargabetuz, bere 4. artikuluan eskaera egiteko epea ezartzen du:

*“Proiektua izapidetzen ari den sailak egingo du aholkularitza txostena emateko eskaria, hori taxutzeko espedientea behin behinekoz onartzeko agindua publiko egin ondoren, eta instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak dagokion txosten juridikoa eman ostean”.*

Izapidetutako dokumentuetan jasotzen denez, aztertzea eskatzen zaigun xedapenaren alde aurreko onarpena uztailearen 13koa da eta, abuztuaren 18koa Zerbitzu Juridikoaren txostena. Bete da, beraz, aipatu Dekretuak xede horrekin araututakoa.



Bestalde, hasieratik zintzilikatu ziren Lege-proiektuaren euskarazko zein gaztelaniazko testuak; beraz, horrela eginda, bete egin zen abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 7. artikulua. Artikulu horren arabera, aldez aurreko onarpenak legearen testu osoari buruzkoa izan behar du; euskarazko zein gaztelaniazko zatiak barne.

Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakia xedapen hori betetzera dator; hain zuzen ere, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituen.

*“betiere dagozkion negoziazio, audientzia eta kontsultak egiteko izapideak egin baino lehenago; izapide horiek guztiak ele bitan dagoen testuarekin egin beharko dira. Ondorengo instrukzio faseetan ere, derrigorrezko txostenak eta irizpenak eskatzeko orduan, bi hizkuntza ofizialetan idatzitako testua bidaliko da”.*

Ildo beretik, izapidetzearen baitan jasotako txostenek testuaren zati biak hartu beharko dituzte kontuan eta, urratsez urrats, egokitzapenak bietan egin beharko dira.

Baina Zerbitzu Juridikoaren txostenaren ondoren, testu proposamen berri bat egin zen, eta horretan berriz somatu dezakegu ez zela arauak eskatzen duena jarraitu, gaztelaniazko zatia abenduaren 20an zintzilikatu baitzen; eta euskarazkoa, ordea, abenduaren 23an.

Tramitazioaren baitan egiten diren moldaketak testuaren zati bakarrean burutzea (usadioak ikusita, gaztelaniazkoan oro har) eta amaieran horren itzulpena egitea lege urraketa litzateke; horrelakoetan, prozeduran erabilitako hasierako testuaren erdia alboratuz (euskarazko zatia, adibidez), izapidetzearen ibilbidea jarraitu ez duen testu berri bat onartzen delako.

#### b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Xedapenaren edukia arakatu ondoren adierazten dut Lege-proiektu honetan jasotakoak ez duela bestelako eraginik izango euskararen erabileran.

Adeitasunez,

Joseba Lozano Santos

Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria